

## 7. koadernoia:

### Urtean zeharreko aldia III (abuztuak 1 – irailak 31)

#### 1. Bizitzatik abiatuta

Hurrengo bi hilak (abuztua eta iraila) guretzat, klaretar misiolariarentzat, oihartzun gogorrez beterik daude. Abuztuaren 26an San Antonio Maria Claretok La Granjan, Espainian, Arrosarioko elizan otoitzean zegoenean hartutako “grazia handiaren” 150 urteak ospatzen ditugu (cf. *Aut* 686). Behin baino gehiagotan galdetu duzu azaltzen zaila den gertaera baten esanahiaz. Gure garaia ez omen da mistikarako sensiblea. Joera daukagu errealitatea ulertzeko moduarekin bat ez datorrena baztertzeko edo alboratzeko. Eman daitezkeen azalpen teologikoetatik harago, argi dago Kristo Eukaristiarekin topatzea San Antonio Maria Claretentzat barrua aldatzeko esperientzia eta konpromiso apostolikorako iturri bihurtu zela. Grazia mistiko horren ospakizuna aprobetxatuz, irailaren 12tik 17ra bitartean sinposio bat egingo dugu Segovian, Espainian, gure karismaren alderdi eukaristikoa sakontzeko. Era horretara, “Eukaristia-Bizitza” egitasmoa beteko dugu. Gure espiritualtasun eukaristikoa aberastu eta eguneratu ahal izateko zantzuak aurkitzen ahaleginduko gara, beti ere oinarritzat hartuta Kongregazio osoari egindako inkestaren azterketa eta Jainkoaren Hitzak, Elizak eta Kongregazioak eskatzen digutenaren gogoeta.

2011garren urte honetan gure anaia askok Espainiako gerra zibilean izandako martirioa ere ospatzen dugu (1936). Bereziki Barbastroko martiri dohatsuak gogoratuko ditugu, abuztuaren 2, 12, 13, 15 eta 18an hilak. Eredugarria izango duzu haien historiara hurbildu eta haien lekukoa hartzea. Haiak azkeneraino bizi izan zuten *Quid Prodest* esperientzia: bizitza fisikoa galtzea gurago izan zuten fedeari eta sinesten zutenari uko egitea baino. Ez da erraza haienaren moduko lekukotasun sendo bat bakarrik jasotzea gaur bizi dugun garai “likidoan”.

Azkenik, abuztuaren 16tik 21era Madrilan, Espainian, Gaztediaren Munduko Jardunaldia egingo da. Hainbat herrialdeetako klaretarrak izango dira topaketa horretan gazteekin batera. Aukera apartekoa izango da

elkarrekin Kristori jarraitzeko bidean sakontzeko lelo honekin: “Kristorengan sustraituta eta hezita, fedean sendo”. Ez ahaztu haiekin bat egitea otoitzaren bitartez.

Liturgian urtean zeharreko aldian jarraitzen dugu. Jainkoaren Hitzak, bai “lectio divina” pertsonalean, bai liturgian, lagungarri izango duzu zure ohiko bizitzako korapiloari argi egiteko: lana, jendearekin bat egitea, atsedena, etab. Utzi laguntzen, jarrera irekiarekin eta apaltasunez. Aldaketarik sakonena eguneroko deien leialtasunean egiten dira.

Aurreko aldian misiolari klaretar bokazioak eta Kongregazio kide izateaz gogoeta egin ondoren, orain zure “izatea munduan” dela eta gogoeta egitera konbidatuta zaude. Gertaera horretatik abiatuta, munduan egotea (balore eta kontra-balore guztiekin) eta Ebanjelioaren aldeko aukera aurrez aurre jarri ahal izango duzu. Abiapuntua da zalantzarik gabeko egia bat: munduan bizi zara. Orain ez dugu esaten mundua (bizi zaren leku fisikoa, kultura, ekonomia, politika, etab.) dela mugitzen garen eszenategia, gure ibiltze galduarekin zerikusirik ez daukan paisaiaren antzera. Are erradikalago esango dugu: *mundu* esaten dioguna gabe ez zinateke izango. Beraz, hasteko, mundua ona dela esan dezakezu, hor *zarelako*. Hari esker bizi zara, han hartzen dituzu erabakiak, handiak edo txikiak. Mundurik gabe ez litzateke askatasunik egongo, ez litzateke aukeratzeko aukerarik izango. Eta, hala ere, baliteke irakatsi izana *mundutik* ihes egiten, *deabrutik* eta *haragitik* bezala, arimaren hiru arerioak baitira. Zertan gara. Hori izan da askoren galdera erantzun gabea. Baina fededuna zara, eta bultzatzen zaituen Espirituak ere belarrira esaten dizu bizi zaren mundu ona baino zerbait gehiago dagoela: maitasunagatik... hura egin zuen eta oraindik egiten duen Sortzailea. Badakizu/uste duzu izakia dagoela, gauzak daudela maitasunagatik egin dituen Norbait dagoelako. Pentsatu duzu horretaz inoiz? Pentsatu duzu inoiz esaten ditugun hitz

guztietatik erradikalena ez dela izakia, maitatzea baino?

Eta, hala ere, egia da hainbeste bizidunekin banatzen dugun sorkuntzak sufriarazten digula. Zure sufrimendu guztien arrazoia ez da bakarra. Batzuetan lurra eta hegaztiak zeharkatzen duten airea zoratu egiten dira. Beste batzuetan ezezagun sentitzen zara zeure gorputzaren barruan, lehenengoz izandako sentazioek, edo terminalek, beldurtu egiten zaituzte. Badira beste giza talde batzuek ere, hurbilekoak eta urrunekoak, beste modu batean pentsatzen dutenak, beste premia batzuk dituztenak, edo besterik gabe, beste batzuek bizitzeko dituzten bitartekorik ez daukatenak. Arrazoiak beti jakituriak bereizten ez baditugu ere, gerra eta istilu lazgarriak ditugu. Hori dena munduaren zati bat da. Batzuetan horretaz hitz egiten dugu gurekin zerikusirik ez balu bezala: mundua “hor dago”, ni “hemen nago”. Baina gizakioi gustatzen ez zaigunaren eta denentzat etorkizun duintzat amesten dugunaren arteko muga zugar dago. Munduan zaude, nahi eta ez: onean eta hain ona ez denean. Harengan eragina daukazu, eta hark zugar eragina dauka. Are gehiago, zein eta zenbat harreman egiten dituzun, beste hainbeste mundu agertuko zaizkizu. Baina, barru-barruan, denak bitan batzen dira, galdera hauei ze erantzun ematen diezun: “mundu” horrek (harreman horrek) erantzuten dio Jainkoak zugandik eta zure neba-arrebengandik nahi duenari? Zure eskuak Sortzailearen eskuen luzapena dira, dena ondo egin zuenarenak? Hartu astia lasai horren gainean gogoeta egiteko. Ondoren zirikatzailerik batzuk aurkituko dituzu. Ez bilatu pentsamendu sistematiko bat. Utzi hitzek eragin diezazuten eta, haiek eraginda, aztertu nola bizi duzun munduarekiko harremana.

## 2. Gogoeta

### Ni bizi naizen mundua

Ze mundutan bizi zara? Ona da apur bat gertatzea pentsatzeko. Gogoratu XXIV Atal Nagusiko adierazpenak, hasteko, hain zuzen ere, “Jainkoaren deiak gure munduan” izeneko atala dakarrela (cf. HAC 1-2). Hamar erroka aipatzen dira, eta gaur egun NBE eta beste erakunde batzuek zein arraza, sineskera eta mundu-ikuskerak ezberdineko pertsona askok bat egiten dute haiekin: bizitzaren alde egitea, elkarriketa

ekumeniko eta erlijio artekoa, familiak eta belaunaldi berriak zaintzea, elkartasuneko ekonomia, pobre eta baztertuen aldeko aukera, elkartasuna migranteekin, heziketa baloreetan, osasuna bultzatzea, sorkuntza zaintzeko informazio-gizartearen aukera berriak. Zorabiatu egiten zaitu halako handitasunak? Bat datoz erroka orokor horiek zuk zure mundu txikian bizi duzunarekin?

Segurutik, lehenengo arreta jotzen dizuna bizitza ulertzeko moduen ugaritasuna izango da. Edo beharbada aldea ez dago bizitza pentsatzeko moduan, bizitzan bertan baino, denok berdin bizi ez garelako, nahiz eta heriotzak denok berdintzen gaituen. Gizakien arteko ezberdintasun guztiak zilegi dira. Batzuk “onartezinak dira”. Batentzat “premia” dena beste batentzat ezezaguna da, eskuraezina dena (luxua), eta honentzat “premia” dena (zorrotz ulertuta) harentzat ez da ezer, eskertzen ez duelako (eguneroko ogia). Batzuentzat, mundua estatistika hutsa da. Beste batzuek haragia eta aurpegia jartzen diete zenbakiei, eta kontzientziara deitzen dute. Nola bizi duzu mundua?: Deika eta eskean daukazu izaki bizidun gisa, edo kontuan hartzen ez den zenbakia gisa, norbera barruan ez dagoenean behintzat?

### Benetako mundua edo mundu birtuala?

Bizi zaren lekuan oinarritzko beharrak aseta badituzu, beharbada pentsaera horrek erakarriko zaitu, bizitzan jokatzeko eta mugitzeko moduagatik. Mundu horretan bizi eta eragiten dizun arren, sartuta zauden kongregazio eta eliza-tradizioak beste hitz batzuekin eta bizitzari eta pertsonari begiratzeko beste modu batzuekin bideratu zaitu. Zure bidaia-zorroa era honetako adierazpidez beteta dago: salbazio-historia, Jainkoa, bokazioa, kongregazioa, eskuzabaltasuna, maitasuna, ematea, anaitasuna, zoriona, misioa, sakrifizio-espirtua, eta abar. Horiekin gidatu duzu zure bidea eta inguruan dituzun pertsonena ere. Baina interferentziak egoten dira beste balore batzuekin eta – batzuetan esaten diezun moduan, “kontrabaloreekin”– bidean zoazen lekuetan daudelako. Zuk bizitza serioan hartu nahi duzu, eta aurkitu duzu “fun umoreak... gaina hartzen duela... gauzen garrantzian inork benetan sinesten ez duenean” (G. Lipovetsky). Alderdi ludikoa nagusitzen da, batzuetan hutsune mota guztiak estaltzen dituen mozorro itxuran. Baina,

hori bai, bagabiltza, eta funtziotik kanpo geratzen den guztia fikzioa da (J.L. Ruiz de la Peña). Zoriona formatu txikikoa baino ezin da izan, eta aginduetan sinesten zen garaiak mehatxuen aldiari txanda eman diola ematen du.

Mundu errealarari birtuala gehitzen zaio. Botoi bati sakatzea nahikoa da informazio-itsaso baterako sarbidea izateko. Era guztietakoak daude. Baina beharbada faltan dituzu jakituria kutsurik handiena dutenak, itxaropena eta bizitzeko zentzua ekar dezaketenak, bereizteko balio dutenak, unean unekoaz gora, zer den ona pertsonarentzat eta zer gizatasuna kentzekoa. Informazio gutxik irekitzen dute aterik heriotzatik harago. Ikusten duzu zein gutxitan bat egiten duten “bizimodu ona” eta “bizitza ona” kontzeptuek, eta azken hori pertsonak “osorik” eta pertsona “guztiak” onura hartzen dutenean dagoela benetan. Estatistikak normala dela esaten duena bat dator etikak arautzailatzat jotzen duenarekin. Eta espiritu liberalak, gaur egun hainbeste goratzen denak, hori izateari uzten dio kontuan hartu beharrekoak pertsonaren interesik hurrekoenei dagokienean. Burua irekia da interes ekonomiko edo pertsonalak ixten ez duen bitartean. Mundu guztiak bilatzen du hurrekoa, eta ia inori ez zaio etorkizuna interesatzen. Oraina bizi dugu.

### **Edertasuna miniaturan**

Baina dena ez da iluntasuna. Edertasun asko dago miniaturan. Baliteke ederrak ez eramatea beste toki edo garai batera, baina gustukoa duzu. Orainaldia bizitzen jakitea jakintsuei dagokie, izan ere ez iragana ez etorkizuna ez dira (San Agustin). Mistika apur bat dago horretan guztian, beharbada barruko iraultzara bakarrik bideratua, ez gizartekoa, eta gure parekoen historiatik aparte. Baina nonbaitetik hasi behar da. Denok –zu ez?– sentitzen gara hauskorrago, eta babestera jotzen dugu. Dena konpontzen da “elkarriketarekin”. Hainbat aldiz, elkarriketa denbora egiteko estrategia baino ez da, edo denbora igarotzeko, guk han iraun dezagun.

Zure garaikideek –haiek bakarrik?– ez daukatela fede handirik herri-agintean ikusten duzu eta, leku batzuetan, are gutxiago elizan. Kontzientzia handia dago justiziaren aldeko borrokaz, baina sarritan ez da ekintza bihurtzen.

Elkartasunaren estetika bat dago (kanpainak, kontzertuak, etab.) baina berehalako erantzukizunetik ihes egiten da. Ahaleginak lekua uzten dio ludikotasunari. Gozamina zoriontzat hartzen da. Sentimenduak ukatu ezineko argumentuaren balioa dauka: “Sentitzen dut, beraz egia da”. Eta sentimenduak irudimenaren aplikadorearekin azaltzen dira, eta bizitzako gune atseginagoak osatzen dituzte.

### **Internet agertzea**

Internet laguntza handia da horretarako. Benetako distantzian, hurbiltasun birtualarekin nahastean, mundu guztia zoragarria da, eta bisitan goazenean moduan ezagutzen gaituzte. Errealitatera itzultzeak beti ere etsipen moduko bat eragiten du, eta arimaren osasunaren profesionalek –nolabait esateko– erraz-erraz konpontzen dute dena: “Lasai, izan zoriontsu”. Konponbidea oreka da, neurriaren plazera. Irudi karismatiko handiak desagertu eta idolo txiki partida sortzen dira, harik eta zerbait berriago eta erakargarriago sortu arte bakarrik irauteko. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek (hedabideak eta irudiaren kultura) kultura berri bat, gizarte berri bat, informazioarena, sortzeko arrazoia izan dira.

Entzungo zenuen hitz egiten G. Vattimo pentsalari italiarraz. Harentzat postmodernitateak modernitatea gaituzte adierazten du, hain zuzen ere, eredu itxiek, egia handiek, oinarri sendoek, historia gertaeren lortz bakartzat ulertzeko modu bakarrek gidatutako modernitatea. Postmodernitateak tolerantzia, aniztasunerako bidea irekitzen du, Vattimoren arabera. Pentsamendu sendo, metafisikotik nihilismo apal batera igarotzea da, arduragabeko igarotzera eta, ondorioz, garrantasun existentzialetik aldenduta. Vattimorentzat, postmodernitatearen eta pentsamendu apalaren ideiak estu lotuta daude, egoera multimediarren garapenarekin lotuta daude.

### **Transmodernitatean gaude?**

Baina gaur egun postmodernitateaz hitz egitea zaharkituta dago. Filosofo batzuen arabera, *transmodernitatearen* garaian omen gaude. Postmodernitatearen ezaugarria izan zen “kontakizun handiak” urritzea.

Transmodernitatea beste “kontakizun handi” baten eramailea izango litzateke, *globalizazioarena*. Hemen kontuan hartzen da komunikazioaren teknologien ustekabeko eragina, merkatuaren eta geopolitikaren hedapen berria. Globalizazio ekonomiko, politiko, informatiko, sozial, kultural, ekologikoa da, dena denarekin lotuta dagoela, magma gorabeheratsu, lauso, baina totalizatzailea. Birtualaren hedapenak, metafisika zaharraren heriotzaren ostean, *ziberontologia* berria erronkan jartzen gaitu, arrazoi digitalaren hegemoniarenean. Baina kontua ez da konpromiso etiko eta politikorik gabe errealitatearen ustezko heriotza ospatzea. Errealitate materiala, ezabatu barik, errealitate birtualak handitu eta moldatu egin duela pentsatzen da. “Trans” aurrizkiak, aldaketa alderdiak ez ezik, Modernitatearen krisia gainditzea ere adierazten du, zorrean dituen errorei berriro helduta, bai erronka etikoak bai politikoak (berdintasuna, justizia, askatasuna), baina kritika postmodernoa onartuta. Beraz, zer mundutan bizi zara? Barka diezagutela bizi ez diren guztiek.

### **Zer zerikusi daukat nik honekin guztiarekin?**

Bizi zaren mundua zure kontua da, era bateko edo besteko eraginak sortzen dizkizu. Baina beti ez digute eragiten *errealitate pertsonal zehatzek*. Zuri bai? Egia ote da kristau pentsalari batzuek diotena? J.B. Metzkek uste du “kristau nortasunaren krisi usteko hori, beste ezer baino gehiago, mezuaren krisia barik, norbanakoen eta erakundeen krisia dela, mezuaren beraren zentzu praktikora gehiegi makurtzen direlako eta, horrela, ulermenaren indarra hausten dutelako”. Eta beste egile ez hain ezagun batek dio: “Gure pastoralak, azken berrogei urteetan egin izan duguna, ez da izan ekintza kosmetikoa baino. Kosta egiten zaigu *gauzen errealitatean egoten*. *Gauzen ideian gaude gustura*” (Javier Vitoria). Zalantzarik gabe, munduak eragin egiten dizu, baina sufritzen duten pertsonen mundu horrek eragiten dizu?

Gugan zerbait esnatu edo sortu behar da, gure burua berarekin bat egiteko zerbait, ez duzu uste? Norbera emateko bokazioa da. Gizakion intuizioaren indarra sartzen da horretan (Edith Stein). Baina ez ahaztu zugaran bizitzako pentsamendu eta baloreak eragiten dituena zugaran kanpora dagoela, besteengan. Zure burua besteengatik ikusten duzu. Batzuetan zugaran

ikusten duzu faltan duzun zerbait, halako edo halako pertsonarengan ikusi duzulako. Ikusten duzu gabezia handiak dituzula, baina konpontzeko modukoak. Benetako bereizketa gauzen errealitateari, pertsonen errealitateari egindako begiradan garatzen da. Horrek denak antzinako oihartzunak ditu, baina baita hurbilekoak ere, jaiotza berrirako beharrezkoak. Gauza onak, grazia adibidez, kanpotik datozkizu, baina barruan kokatzen zaizkizu, izan ere, ontasunak beti dauka isileko laguntzaile bat gizakion bihotz bakoitzean.

Munduak hitz egiten dizu, eta zuk munduari hitz egin nahi diozu. Zer esango diozu? Nagusiengandik hartu zenuena? Haien hitzak? Zein dira hitz horiek? Banan-banan esan ditzakezu. Hitz-zerrenda bat egin dezakezu berriro. Baina oraingoan *bizitzeko* balio dizkizutenekin, zugaran “zeure mundua” sortzen dutelako, mundura irteteko ere. Izan zaitez apur bat originalagoa. Ez esan zugarandik entzutea espero dena. Haserre zaude inguruan dituzun pertsonekin hainbeste kosta zaizuna ikasteko ahaleginik egiten ez dutelako? Zergatik ez pentsatu bizimodu berriak ezin dizula lagundu iraganean atxikitakoak kentzen, zu definitzen ez bazaituzte ere zurekin egon direnak beti? “Betikoa” zara? Tradizio guztia ez da T larriaz idazten. Ez duzu uste zure tradizio benetakoenean sartzen denak oihartzuna daukala gure garaiko pertsonengan? Ez al da zuzenagoa esatea munduak sakonean nahi duena zarela, apaltasunez eskaini ahal duzuna?

### **Informatuta, konektatuta, komunikatuta?**

Baina mundua ugaritzen doa. Ez da zure ondoan daudenekin bakarrik osatzen. Mundu birtuala esaten zaio, zure elkarteko, edo gelako *bazter* horri, beste espazio baten erdian kokatzen zaituenari. Elektronikak bizitzako ohiturak aldatu dizkizu. Ondo informatuta zaude, eta fisikoki urrun baina espazio pertsonal horretan hurbil dauden pertsonekin komunikatzen zara. Beti zaude aurkitzeko moduan, eta beste batzuk ere hala daude zuretzat. Gehiago hitz egiten duzu, gauza gehiago entzuten dituzu, irudi mota guztiak ikusten dituzu. Zer hondar uzten du horrek denak zugaran? Bitarteko horien jabe zarela esango zenuke? Haien zu zeharkatzen ala zaituzte? Badakizu informazioa filtratzen “zure arimaren kapitaina” izateko? Hedabideez esaten da ez

direla kaltegarriak, neutralak direla, eta ondo erabilia oso lagungarriak direla. Baina errealista izanez gero, “zure arimaren kapitaina” zara? Nahi duzun lekura eramaten zaituzte (neba-arreben eta Jainkoaren laguntzaz)? Askeago zara?

Inguruan dituzunek errealitateari beste begi batzuekin begiratzen ikasi dute. Zuk ere bai beharbada. Gauzei beren txikitasunean begiratzen ikasi dute. Ez da begirada “transzendentala” akaso, baina jendea horrela pozik dago, “ezer egin gabe” balego moduan. Pertsonak egon daude, eduki egiten dira. Ez dute istorio asko entzun (familiaz, kulturaz, nagusien fedez). Zer sentimendu eragiten dizkizute halako pertsonak? Haiekin egoten ikas dezakezu eta, nork jakin, beti dago zerbait esateko aukera, “beste garai batez”, “beste leku batez”, bizitza bat hemen eta orain argitzeko.

## Memoriaren indarra

Sentimenduei, badakizu, gaur egun garrantzi handia ematen zaie. Esperientzia sentsazioan geratu da. Zuk askoz gehiago eskatzen diozu ikasketa-bidaia bati, edo lan-esparru bati. Jendeak esperientziaz hitz egingo du, zer sentitu duen. Zintzoak izanda, aitortuko duzu sentitzea (zerbaitek eragin diezazula) garrantzitsua dela. Zerk eragiten dizu zu bizi zaren espazioan? “Sentimenduen bereizgarria da pentsamendu eta hondar guztiak sentiberatasunak biltzen dituela, hau da, maitasun eta sentsazio espiritual moduko batek (baloreen sentsazioa)” (B. Häring). Arlo honetan nahiko gogorak izateko joera izan dugu. Aukerak borondatearen eta arrazoiaren esparrura ekarri ditugu. Baina, bizitzen benetan laguntzen diguna memoria dela? Memoriak bihotzean jokutzen du. Buruz ikasitako gauzak erraz ahazten dira, baina bihotzez ikasitakoek (*by heart*) iraun egiten dute. Adeitasunez ikasitakoa faltan daukagunean, “maitasun-mina” sentitzen dugu, eta hura osatzen duen bakarra eskatzen ikasten dugu –ze ondo!–: *presentzia eta figura* (San Joan Gurutzekoa).

## Aniztasunean bilduta

Alaitu aurpegi hori, gizona! Mundua ez da aldatu, zabaldu egin da. Mundu berean bizi gara. Birtualak hori irakatsi digu, anbiguotasun guztiakin. Gaur egun jakitun zaude kultura-aniztasunak zenbateko aberastasuna dakarren.

Zuri-beltzetik kolorezko irudira aldatu duzu. Gogoetetan gal zaitezke, eta hedabideek eramaten utzi, baina mundu handi eta aldi berean bakarrera ere ager zaitezke. Mundu hori zain daukazu. Ikasi eta eman egin dezakezu. Ez dena hain serio hartu. Utzi besteei irakasten zuk irakasten duzun une berean, utzi besteek zuri ematen egiten dakizuna eskaintzen ari zarenean. Utzi munduak eragin diezazun. Ez joan inor salbatzera, bizi ongia egiten. Ongia –badakizu, ziur– joan-etorrikoa da, elkarrekikoa. Libre egiten gaitu, ez egindako ongiak, ongia egin diegun pertsonak baizik. Hartu duzun grazia *inklusiboa* da, grazia beti baita misioa. Hartzen duzun onura besteek igarri behar dute. Besteek zure bokazioan “baiesten” zaituzte. Eta horrek, anaia, mesede egiten dizu.

## Munduan mundukoa izan gabe

Munduan zaude, han bizi zara. Jainkoak sortutako munduak hartaz hitz egingo dizu. Mundua da zure etxea eta neba-arreben alde eskatzen duzunean harengatik eskatzen duzu. Helburu bera dugu, “badakigu, izan ere, izadi osoa erdiminetan intzirika dagoela orain arte. Eta hura ez ezik, geu ere bai: Espiritua lehen-dohaintzat hartu dugunok” (*Erm* 8, 22.23). Baina era berean egia da ez zarela mundukoa, Jauna ere mundukoa ez den bezala (cf. *Jn* 17, 14). Ez zaitugu nahastu nahi: hura hartu ez zuen munduak berak haren planaren kontra dihardu. Negarrez ari den munduan, Jainkoaren seme-alabak agertzea itxaroten duen horretan (cf. *Erm* 8, 19), indar bat dago kontra egiten zure ametsik benetakoenei, zure bihotzean Jaunak ezarri zituenei misiorako bokazio gisa. Kointzidentzia zoritzarreko bategatik, indar horrek izen bera dauka: “mundua”.

“Munduan mundukoa izan gabe” da kontzilio osteko bizitza erlijiosoa gidatu duen leloa. Joanen ebanjelioko 17garren atala irakur dezakezu. Bat egizu Jesusen otoitzarekin, haren otoitza izan dadila zurea. Jesusek Aitaren izena jakinarazi dizu, mundutik hartuta, lehenago Aitak Jesusi egindako oparia izan zinelako (v. 6). Jaunak zugatik otoitz egiten du (v. 9), munduan zaudela (v. 11), nahiz eta mundukoa izan ez (v. 14). Bereizi egin behar duzu bizi zaren mundu horretako benetako bokazioa eta, izen bera izanik ere, deseroso dagoena “noble betierekoan” errotutako guztiarengatik (Carlos Díaz). Ez

haserre sentimendurik bultzatu. Mundua maitatu-salbatu behar da (cf. *Jn 3, 17*). Baina ez izan inozoa ere. Begiratu zure buruari, begiratu bokaziorik benetakoenetik aldentzen zaituena. Eskala handiagoan, zurekin gaudenon historian ere halako zerbait gertatzen da: ez dugu ituan jotzen. Gure egoismo eta indiferentziaz, gure ondokoei sufriarazi egiten diegu. Ez duzu uste adi egon behar dugula gizatasuna kentzen digunarekin? Hala ere beti begirada apala eta Jainkoaren maitasunean konfiantza osoa izan behar dugu.

Zure bokazioak askori eragiten digu. Gogoratu hartu duzun grazia, grazia guztien moduan, *inklusiboa* dela. Beraz, zaindu honda dezakeen guztitik. Ez ahaztu zure zortea, zure bekatua, gure zortea eta gure bekatua izango dela. Askok nahi duzu zu “persona librea” izatea. Zure bekatuaz eta zure pobreziaz jabetzeak ez dizu askatasunik kentzen; alderantziz, leialtasunari eutsiko diozun euskarri bakarra ikusarazten dizu. Hori izango da zure askatasuna. Eta askatasunaren uste sakon horri esker zerbitzatu eta maitatuko duzu. Horrela, bidea beti hasten da *esperientzia sakonean* eta uko egitera doa. Inoiz ez da uko eginez hasten. Zure pobrezia *Kristo Salbatzailearengan* eusten da. Zure bokazioa zaintzean, ez aurrez aurre begiratu zu tentatzen ari den arerioari. Beste batzuetatik badakizu zu baino sendoagoa dela eta garaitu egingo zaituela. Begiratu deitu dizunari, aginduen Jaunari. Ez dago hura garaituko duen etsairik. Bekatua eta maitasuna lagun dituzu. Baina Jaunaren askatasun-deia indartsuagoa da. Benetako aszesiak inguruan daukagun ontasunari begiratzen dio, eta hark elikatzen du.

Gogoratu Teilhard de Chardinen otoitz eder hau (*Gurtu eta izan uste*):

*Ez zaitetz larritu bizitzaren zailtasunagatik,  
bere gorabeherengatik, bere etsipenengatik,  
bere etorkizunaren argi-iluntasunengatik.  
Nahi ezazu Jainkoak nahi duena.  
Kezka eta zailtasunen artean, eskain iezaiozu,  
dena denik, bere asmoak onartzen dituen  
zure bihotz xumearen oparia.  
Ez du axola zeure burua lur jota ikusten baduzu,  
Jainkoak bete-betea ikusten bazaitu; zugar atsegin  
badu.*

*Gal zaitetz itsu-itsu beretzat nahi zaituen Jainko  
horrengan,  
Berarengan zeure uste osoa jarriz:  
Zureganaino etorriko baita, zuk Bera inoiz ikusi ez  
arren.  
Pentsa ezazu bere eskuetan zaudela,  
hainbat eta estuago gordea,  
zenbat eta eroriago eta tristeago aurkitzen zaren.  
Bizi zaitetz zoriontsu, arren eskatzen dizut.  
Bizi zaitetz bakean.  
Inork ez zaitzala larriarazi.  
Ez dadila izan bakea galaraziko dizunik ezer,  
ez zeure buruko nekerik  
ez zeure hutsegite moralik.  
Darizula eta zeure aurpegian gorde dezazula beti  
irribarre gozoa,  
Jaunak zuri etengabe zuzentzen dizunaren isla.  
Eta zeure arimaren sakonean ezar ezazu, beste ezeren  
aurretik,  
indar iturri eta egia neurri gisa  
Jainko-bakez betetzen zaituen guztia.  
Gogoratu: estutzen edo larritzen zaituen oro faltsua  
da.  
Bizitzaren berezko legeen  
eta Jainkoak hitzemanaren izenean baieztatzen dizut:  
horregatik, atsekabeturik eta triste zaudenean,  
gurtu eta izan uste on.*

*Karlos Agirrek euskaratua*

Ona da zure burua pertsona “zoragarri pobretzat” aurkitzea. Mundua ederra da beti, eta dei bat darama, baina zure askatasunak edertasun horretara makurtu behar du, eta ez berarengan. Horri ere “mundu” esaten zaio, Hitzari kontra egiten dion indarrari, hartu ez zuen indarrari (cf. *Jn 1, 11*).

### 3. Pertsonalizatzeko

Koaderno honetan aurrekoetan baino ariketa gutxiago aurkituko duzu. Berez, bat baino ez. Hil biotan lasai-lasai egiten joan zaitezke.

### 1. ariketa

1. Bizi zaren errealitateak zer *dei* egiten dizu? Zer egiten zaizu deigarri, zuk erantzun zehatza eman ahal zenukeen zentzuan? Ez duzu kausa handietan pentsatu beharrik. Ez ahaztu “samaritar keinu” txikiak. Ez ahaztu *pertsonak munduaz* pentsatzen duzunean.
2. Zure aurrekoengandik (familia, Kongregazioa, hezitzaileak...) hartu zenituen baloreetatik, zeinek dauka gaur ere indarra? Zein utz ditzakezu albora? Zer balore, bizi zaren kultur espazioan daudenetatik, eta hartutako prestakuntzatik heldu ez zaizkizunetatik, izango lirateke kontuan hartzekoak?
3. Aipatu gustuko duzun *artelan garaikideren* bat (pintura, arkitektura, eskultura, literatura...). Deskribatu. Saiatu lan horrek zuri zer eragiten dizun adierazten (sentsazioak, pentsamenduak...).
4. Nola erabiltzen dituzu *informatika eta aurrerapen elektronikoak*? Zer jarrera eta sentimendu sorrazten dizkizute zibernetika munduko aurrerapenek? Bitartekoon jabe zara? Badakizu erabiltzen informazioa zerbitzu-bokazioaren arabera?
5. Ariketa bat. Ohetik altxatzen zarenean, ireki gelako leihoa: begiratu kanpora *zure gela ez ikusteko* moduan. Erreparatu deigarri egiten zaizun zerbaiti. Ariketa honen aldaera: gustuko duzun leku batean, begiratu inguruan *zure burua ez ikusteko* moduan (ez besoak, ez zangoak...), begiratu munduari, kreaioari. Ezer egiten bazaizu deigarri... jaso.

### 4. Laguntza pertsonalerako proposamenak

1. “Egunkari” moduko bat egin dezakezu, *Jauna zure bizitzan* igarotzen idazteko. Egunkari batean gauza asko idatzi daitezke: pasadizoak, gertaerak, bekatuak (eguneko azterketa)... Horrek denak balioa izan dezake, dudarik ez. Baina hemen beste gauza bat egiteko konbitea egiten zaizu: begiratu zure eguneroko bizimoduari, “zeruko keinuei” erreparatzeko, dei bat berretsi dezakeen guztiari.
2. Laguntzailearekin elkarrizketa egin aurretik, irakurri eta idatzi zure egunkariko punturik adierazgarrienak.
3. Ahalegindu zure laguntzaile espiritualaren aholku jakintsu bat buruan gordetzen. Memoriak huts egiten badizu, idatzi aholku hori papertxo batean, eta aldean eraman beti, hurrengo elkarrizketara arte.

### 5. Aldi honetako *lectio divina*-rako lorratzak

<b>Astelehena</b> <b>Abuztuak 1</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Zen 11,4-15</b></li> <li>• <b>Mt 14,22-36</b></li> </ul>	<b>San Alfonso Maria Ligoriokoaren memoria, gotzaina eta Elizako doktorea, patrono kidea (Klaretarren egutegia, 257-262 or.)</b>	Jesus mamu bat da haren hitzarekin fidatzen ez garenean. Baina Jainkoaren Semea da, haizearen indarra ere menperatzeko gai. Jesusez daukazun ideiei jarraituko diezu, zure beldurrei, haren inguruko modei. Baina ez du ezertarako balio. Fedea baino ez digu laguntzen hura ezagutzen.
<b>Asteartea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Zen 12,1-13</b></li> </ul>		Zertarako da arauak zorrotz betetzea, baita erlijio-errituei lotutakoak

Abuztuak 2	<ul style="list-style-type: none"> <li>Mt 15,1-3. 10-14</li> </ul>		ere, bihotz ustela ezkatatzeko baino ez bada? Fruituek "azaltzen" dute sustraian kalitatea.
Asteazkena Abuztuak 3	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zen 13,2-3.25-33; 14,26-30.34-35</li> <li>Mt 15,21-28</li> </ul>		Jesus gai da Israelgo herrikoa ez den emakume batengandik ikasteko ere. Ez duzu uste zure inguruan jende asko sinesteko beste modu bat irakasten ari zaizula? Zertarako balio du ahots horiei jaramonik ez egitea?
Osteguna Abuztuak 4	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zen 20,1-13</li> <li>Mt 16,13-23</li> </ul>	San Juan Maria Vianney apaizaren memoria	ez da nahikoa ezpaineekin Jesus Jainkoaren Semea dela onartzea. Hori fede arriskutsua da: haren zortearekin bat egitea da. Zertarako balio du benetako fedea adieraztea haren ondorioak onartzeko prest ez bagaude?
Ostirala Abuztuak 5	<ul style="list-style-type: none"> <li>Dt 4,32-40</li> <li>Mt 16,24-28</li> </ul>		Berriro ere <i>Quid Prodest</i> -eko testua gordinik dator, Clareti hainbesteko eragina egin ziona, haren bizitzaren norabidea aldatzeraino. Zer eragin dizu zure liturgi urte honetan zehar?
Larunbata Abuztuak 6	<ul style="list-style-type: none"> <li>Dn 7,9-10.13-14</li> <li>2 P 1,16-19</li> <li>Mt 17,1-9</li> </ul>	Jaunaren antzaldatzearen jaia	66 urte bete dira Hiroshiman bonba atomikoa bota zutela. Gertaera hori gizakiaren botere suntsitzailearen adierazgarria da. Baina Jainkoaren botereak gaizki guztia alda dezake. Jesusen moduan Aitak maite zaituela sentitzen duzu? Esperientzia horrek menditik jaisteko ahalmena ematen dizu gaizkiaren kontra borrokatzen jarraitzeko?
Igandea Abuztuak 7	<ul style="list-style-type: none"> <li>1 Erg 19,9-13</li> <li>Erm 9,1-5</li> <li>Mt 14 22-33</li> </ul>	Urtean zeharreko XIX. igandea	Jainkoa ez dago ez haize bortitzean ez lurrikaran ez suan. Jainkoa haize gozoan, haizearen gainean eta gaizkiaren indar guztien gainean boterea daukanaren Espirituan dago.
Astelehena Abuztuak 8	<ul style="list-style-type: none"> <li>Dt 10,12-22</li> <li>Mt 17,21-26</li> </ul>	Santo Domingo Guzmango apaizaren memoria	"Lur honetako erregea" gizakien legeen menpe jartzen da: zergak ordaintzen ditu "asaldatu ez daitezten". Testu hau lagungarri duzu kontsokratu gisa zure egoera hobeto ulertzeko gizartearen barruan? Pribilegioak edo legeak betetzea?
Asteartea Abuztuak 9	<ul style="list-style-type: none"> <li>Dt 31,1-8</li> <li>Mt 18,1-5.10.12-14</li> </ul>		Txiki egin eta txikiak hartu: hori da Jesusen mezua. Haur bat hartzea Jesus bera hartzea da. Ez al da harrigarria?
Asteazkena Abuztuak 10	<ul style="list-style-type: none"> <li>2 Ko 9,6-10</li> <li>Jn 12,24-26</li> </ul>	San Lorenzo diakono eta martiriaren jaia	Kristau-eraginkortasuna gari-alearena da: lehenengo "hil egiten da" lurpean eta gero "fruitu asko ematen ditu". Horrela eraginkorra izateko prest zaude?
Osteguna Abuztuak 11	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jos 3,7-17</li> <li>Mt 18,21-19,1</li> </ul>	Santa Klara birjinaren jaia	Jesusek ematen eta proposatzen duen barkamena hain da handia, hain kalkuluetatik kanpoko, ez gaude ziur benetan zer esan nahi duen. Inoiz bizi izan duzu halako neurrigabekeriarik?
Ostirala Abuztuak 12	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jos 24,1-13</li> <li>Mt 19,3-12</li> </ul>		Hasieran, Jainkoaren ametsean, gizona eta emakumea haragi bakarria izatera deituak daude. Batzuek uko egin diote ezkontzeari zeruko Erreinuarengatik. Zer adierazten dute zuretzat ezkontzak eta zelibatoak Jainkoaren planaren adierazpen osagarri gisa?
Larunbata Abuztuak 13	<ul style="list-style-type: none"> <li>2 Ko 4,7-15</li> <li>Jn 15,18-21</li> </ul>	Barbastroko Klaretar dohatsu eta martirien memoria (Klaretarren egutegia, 263-270 or.)	Ez al da egun egokia Jainkoari eskerrak emateko Barbastroko martiriek bizi izan zuten <i>Quid Prodest</i> esperientzia zirrargarriarengatik? Denbora iraganak esanahi sakonagoa ematen dio Jesusen jarraitzaile izateagatik bizitza eman izanari.
Igandea Abuztuak 14	<ul style="list-style-type: none"> <li>Is 56 1.6-7</li> <li>Erm 11,13-15.29-32</li> <li>Mt 15,21-28</li> </ul>	Urtean zeharreko XX. igandea * Jaunaren zerbitzaria Fernando Saperas anaia, martiria (Klaretarren egutegia, 271-	Israelgo herrikoa izatea garrantzitsua den arren ("Israel herriko ardi galduengana bakarrik bidali nau Jainkoak"), balio duen bakarria fedea da: "Emakumea, handia da zure fedea!". Zertarako duzu kontsokratua izatea Jesusen fedetik bizi ez bazara?



		276 or.) * Jaunaren zerbitzaria Marcelino Alonso aita eta martiri lagunak ( <i>Klaretarren egutegia</i> , 277-282 or.)	
<b>Astelehena Abuztuak 15</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ap 11,19a: 12,1-10</li> <li>• 1 Ko 15,20-26</li> <li>• Lk 1,39-56</li> </ul>	<b>Maria Birjinaren asuntzioaren jaia</b>	Mariaren Magnificat benetako <i>Quid Prodest</i> kantua da. Bizitzan aberatsa edo boteretsua izateak ez du ezertarako balio. Jainkoak behera botatzen ditu zerbait direla uste dutenak eta zerbitzariaren txikitasunari begiratzen dio. Oraindik ere zure indarraz fidatzen zara bizitzari aurre egiteko orduan?
<b>Asteartea Abuztuak 16</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Epa 6,11-24</li> <li>• Mt 19,23-30</li> </ul>	<i>XI Gazteen Munduko Jardunaldia hasi Madrilen</i>	Jesusi jarraitzearen dena uzten dutena baino (etxeak, senideak, lurrak) ehun bider gehiago eta betiko bizitza hartzen dute. Hala ere, "nekez sartuko da aberats bat zeruko erreinuan". Jesusen hitz horien egiaz konbentzita zaude?
<b>Asteazkena Abuztuak 17</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Epa 9,6-15</li> <li>• Mt 20,1-16</li> </ul>	* Jaunaren zerbitzaria <b>Pedro Marcier anaia</b> ( <i>Klaretarren egutegia</i> , 283-288 or.)	Ebanjelioa ez da produktibitate irizpideekin arautzen, doantasunez baino. Zertarako duzu betebeharra zehatz betetzea, goizean goizetik hasita lan egitea, zure bihotza kalkulatzeko, zitala, inbidiatsua bada?
<b>Osteguna Abuztuak 18</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Epa 11,29-39</li> <li>• Mt 22,1-14</li> </ul>	* Peter Schweiger, Nagusi Generala ( <i>Klaretarren egutegia</i> , 289-294 or.)	Erreinuak oturuntza denontzat irekita dago, baita bizitzako bideetan galduta dabilzanentzat ere. Baina batzuetan nahiago dugu gure interesen alde jokatzeko. Merezki al du? Zein da azkenean emaitza?
<b>Ostirala Abuztuak 19</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Rt 1,1-22</li> <li>• Mt 22,34-40</li> </ul>		Jainkoa maitatzea eta hurkoa maitatzea. Jesusentzat ez dago zalantzarik legearen muinaz. Pentsatzen eta egiten duguna bi agindu banaezin horiek bizitzeko laguntza ez bada, zertarako balio du?
<b>Larunbata Abuztuak 20</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Rt 2,1-17</li> <li>• Mt 23,1-12</li> </ul>	<b>San Bernardo Elizako abade eta doktorearen memoria</b>	Zertarako dugu asko hitz egin eta gutxi egitea? Jesusen <i>Quid Prodest</i> -ak agerian uzten ditu hitzaldi hutsak, besteei eskatzea, itxura hutsa. Aita bakarra dago (Jesusen Jainkoa). Maisu bakarra dago (Kristo).
<b>Igandea Abuztuak 21</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 22,19-23</li> <li>• Erm 11,33-36</li> <li>• Mt 16,13-20</li> </ul>	<b>Urtean zeharreko XXI. igandea</b>	Pedro haitza da. Berari ematen dizkiote giltzak, lotzeko eta askatzeko boterea. Baina ez gaitasun pertsonalengatik, baizik eta Jesus Kristotzat agertzeagatik, zeruko Aitak argia ematen uzteagatik.
<b>Astelehena Abuztuak 22</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 9,2-7</li> <li>• Lk 1,39-47</li> </ul>	<b>Maria erreginaren memoria</b>	Nazareten gelditu edo berehala bidean jarri Judeako mendirantz? Mariaren bizitza bidegurutzez beterik dago, Jaunaren bidea aukeratu behar duen egoeraz beterik.
<b>Asteartea Abuztuak 23</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1 Ts 2,1-8</li> <li>• Mt 23,23-26</li> </ul>	* Santa Rosa Limakoa, birjina ( <i>Klaretarren egutegia</i> , 295-299 or.)	
<b>Asteazkena Abuztuak 24</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ap 21,9-14</li> <li>• Jn 1,45-51</li> </ul>	<b>San Bartolome apostolu eta patrono kidearen jaia</b> ( <i>Klaretarren egutegia</i> , 301-304 or.)	
<b>Osteguna Abuztuak 25</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1 Ts 3,7-13</li> <li>• Mt 24,42-51</li> </ul>	* Maria Sortzez Garbiaren erlijiosoen	

		fundazioa ( <i>Klaretarren egutegia</i> , 305-310 or.)	
Ostirala Abuztuak 26	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1 Ts 4,1-8</li> <li>• Mt 25,1-13</li> </ul>	* San Antonio Maria Clareti La Granja, Segovia, Espainian emandako "grazia handiaren" 150. urteurrena ( <i>Klaretarren egutegia</i> , 311-317 or.)	
Larunbata Abuztuak 27	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1 Ts 4,9-12</li> <li>• Mt 25,14-30</li> </ul>	Santa Monikaren memoria	
Igandea Abuztuak 28	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jr 20,7-9</li> <li>• Erm 12,1-2</li> <li>• Mt 16,21-27</li> </ul>	Urtean zeharreko XXII. igandea	
Astelehena Abuztuak 29	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jr 1,17-19</li> <li>• Mk 6,17-29</li> </ul>	San Joan Bataiatzailearen martirioaren memoria	
Asteartea Abuztuak 30	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1 Ts 5,1-11</li> <li>• Lk 4,31-37</li> </ul>		
Asteazkena Abuztuak 31	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kol 1,1-8</li> <li>• Lk 4,38-44</li> </ul>		
Osteguna Irailak 1	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kol 1,9-14</li> <li>• Lk 5,1-11</li> </ul>		
Ostirala Irailak 2	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kol 1,15-20</li> <li>• Lk 5,33-39</li> </ul>		
Larunbata Irailak 3	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kol 1,21-23</li> <li>• Lk 6,1-5</li> </ul>	San Gregorio Magno aita santu eta Elizako doktorearen memoria	
Igandea Irailak 4	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez 33,7-9</li> <li>• Erm 13,8-10</li> <li>• Mt 18,15-20</li> </ul>	Ohiko aldiko XXIII. igandea	
Astelehena Irailak 5	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kol 1,24-2,3</li> <li>• Lk 6,6-11</li> </ul>	* Mateo Casals eta lagunak, martiriak, Jainkoaren zerbitzariak ( <i>Klaretarren</i>	

		<i>egutegia, 321-327 or.)</i>	
Asteartea Irailak 6	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kol 2,6-15</li> <li>• Lk 6,12-19</li> </ul>		
Asteazkena Irailak 7	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kol 3,1-11</li> <li>• Lk 6,20-26</li> </ul>		
Osteguna Irailak 8	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erm 8,28-30</li> <li>• Mt 1,18-23</li> </ul>	Andre Mariaren Jaiotzaren jaia	
Ostirala Irailak 9	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1 Tm 1,1-14</li> <li>• Lk 6,39-42</li> </ul>		
Larunbata Irailak 10	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1 Tm 1,15-17</li> <li>• Lk 6,43-49</li> </ul>		
<b>Igandea</b> <b>Irailak 11</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Si 27,30-28,9</b></li> <li>• <b>Erm 14,7-9</b></li> <li>• <b>Mt 18,21-35</b></li> </ul>	<b>Urtean zeharreko XXIV. igandea</b>	
Astelehena Irailak 12	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1 Tm 2,1-8</li> <li>• Lk 7,1-10</li> </ul>		
Asteartea Irailak 13	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1 Tm 3,1-13</li> <li>• Lk 7,11-17</li> </ul>	San Joan Krisostomo gotzain eta Elizako doktoarearen memoria	
Asteazkena Irailak 14	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zen 21,4-9</li> <li>• Flp 2,6-11</li> <li>• Jn 3,13-17</li> </ul>	Gurutze Santuaren goratzarren jaia	
Osteguna Irailak 15	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 5,7-9</li> <li>• Jn 19,25-27</li> </ul>	Doloreetako Ama Birjinaren memoria	
Ostirala Irailak 16	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1 Tm 6,2-12</li> <li>• Lk 8,1-3</li> </ul>	Kornelio eta Zipriano santu martirien memoria	
Larunbata Irailak 17	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1 Tm 6,13-16</li> <li>• Lk 8,4-15</li> </ul>		
<b>Igandea</b> <b>Irailak 18</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Is 55,6-9</b></li> <li>• <b>Erm 1, 20-27</b></li> <li>• <b>Mt 20,1-16</b></li> </ul>	<b>Urtean zeharreko XXV. igandea</b>	
Astelehena Irailak 19	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Esr 1,1-6</li> <li>• Lk 8,16-18</li> </ul>		
Asteartea Irailak 20	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Esr 6,7-20</li> <li>• Lk 8,19-21</li> </ul>	Andres Kin, Pablo Chong santuen eta martiri lagunen memoria	
Asteazkena Irailak 21	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ef 4,1-13</li> <li>• Mt 9,9-13</li> </ul>	San Mateo apostolu, ebanjelari eta patrono kidearen jaia ( <i>Klaretarren egutegia, 329-334 or.</i> )	
Osteguna Irailak 22	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ag 1,1-8</li> <li>• Lk 9,7-9</li> </ul>	* M. Maria Patrocínio Giner dohatsua, misiolari	

		klaretarra, martiria ( <i>Klaretarren egutegia</i> , 335-339 or.)	
Ostirala Irailak 23	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ag 2,1-10</li> <li>• Lk 9,18-22</li> </ul>		
Larunbata Irailak 24	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Za 2,1-5.10-11</li> <li>• Lk 9,44-45</li> </ul>		
Igandea Irailak 25	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez 18,25-28</li> <li>• Flp 2,1-11</li> <li>• Mt 21,28-32</li> </ul>	Urtean zeharreko XXVI. igandea	
Astelehena Irailak 26	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Za 8,1-8</li> <li>• Lk 9,46-50</li> </ul>		
Asteartea Irailak 27	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Za 8,20-23</li> <li>• Lk 9,51-56</li> </ul>	San Bizente Paúl apaiza * Manuel Vilaró aita, fundatzaile kidea ( <i>Klaretarren egutegia</i> , 341-346 or.)	
Asteazkena Irailak 28	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ne 2,1-8</li> <li>• Lk 9,57-62</li> </ul>		
Osteguna Irailak 29	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dan 7,9-10.13-14</li> <li>• Jn 1,47-51</li> </ul>	Migel, Gabriel eta Rafael goiaingeru eta patrono kideen jaia ( <i>Klaretarren egutegia</i> , 237-241 or.)	
Ostirala Irailak 30	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ba 1,15-22</li> <li>• Lk 10,13-16</li> </ul>	* Francisco Crusats aita, Kongregazioko protomartiria ( <i>Klaretarren egutegia</i> , 353-357 or.)	

## 6. Sakontzeko

### Kongregazioari agur egiteko gutuna

“Kongregazio maitea: Herenegun, hilaren 11n, hil ziren gure sei anaia, martiriak hil ohi diren eskuzabaltasunez; gaur, hamahiru, hogeik garaipenaren ikurra lortu dute, eta bihar, hilak hamalau, hilko omen gara gainerako 21ak. Gora Jainkoa! Gora Jainkoa! Zer noble eta heroi jokatu duten zure semeek, Kongregazio maitea! Martiriorako elkar animatzen ematen dugu eguna eta otoitz egiten gure etsaien alde eta gure Institutu maitearen alde. Biktimak izendatzeko unea datorrenean, denok daukagu lasaitasun santua eta izena entzuteko gogoia,

aurrera egin eta aukeratuen taldean sartzeko; unearen zain gaude emateko larriaz, eta heltzen denean, ikusi izan ditugu batzuk lotuta dauzkaten kordelei musuka, eta beste batzuk bakarmen-hitzak esaten armadari: kanposanturantz kamioian doazenean, oihuka entzuten diegu Gora Kristo errege! Herriak gorrotoz erantzuten du: Hil! Hil!, baina ezerk ez ditu ikaritzen. Zure semeak dira, Kongregazio maitea, pistola eta fusil artean lasai-lasai Gora Kristo errege! oiuhu egiten ausartzen direnak kanposanturantz doazela. Gora Kristo errege! Bihar joango gara gainerakook eta prest daukagu esateko esaldia, tiroak botata ere, gure Amaren Bihotzari, Kristo Erregeri, Eliza Katolikoari eta

gu guztion Amari. Lagunek esaten didate neu hasteko Goraka eta haiek erantzun egingo dutela. Nik birikek uzten didaten indar guztiaz oihu egingo dut, eta gure aldarrari gogotsuetan zuk, Kongregazio maitea, asmatu norainoko maitasuna dizugun, gure oroimenean eraman baitzaitugu min eta heriotza lurralde hauetaraino.

Pozik hiltzen gara denok, inork zorabiorik ez damurik ez duela; Jainkoari otoitz eginez hiltzen gara denok, gure zaurietatik irtendako odola ez dadin mendeku-odola izan, zure zainetan gorri eta bizi sartzen den odola izanik, zure garapena eta mundu osoan zabaltzea bultza dezala. Agur, Kongregazio maitea! Zure semeak, Barbastroko martiriak, presondegitik agurtzen zaituzte eta beren min eta estualdiak eskaintzen dizkizute gure gabezien holokausto garbitzaile gisa eta gure maitasun leial, eskuzabal eta betikoaren erakusle. Biharko, hamalauko Martiriek Asuntzio bezperan hilko direla gogoratzen dute. Eta zer oroimen hori! Sotana erabiltzarren hilko gara eta, hain zuzen ere, hura hartu genuen egun berean hilko gara”.

*Barbastroko martiriak, eta denen izenean, azkena eta duintasunik gutxienekoa, Faustino Pérez, C.M.F.*

### **Joan Paulo II.a aita santuaren hitzalditik beatifikazio egunean (1992ko urriak 25)**

“Seminario osoak egingo dio eskuzabaltasunez eta ausardiaz Jaunari martirio-  
eskaintza. Gazteon sendotasun espiritual eta morala ikusi duten lekukoen eta haien idatzien bitartez heldu zaigu. Horretan oso esanguratsuak dira seminarista gazteek adierazitako lekukotasun pertsonalak. Haietako batek, familiari idaztean hau dio: “Lerro hauek hartzen dituzunean abestu Jaunari dohain handi eta apartekoa eman didalako, martirioa”. Beste batek ere idatzi zuen: “Gora Mariaren Bihotz Garbia! Erlujosoak izateagatik bakarrik hilko gaituzte!” eta bere ama-hizkuntzan gehitzen du: “No ploreu per mi. Soc märtir de Jesucrist”.

Martiriok honetara azaldu zuten abadegintzan jarduteko erabaki sendoa: “Ministerio santua lurrean bete ezin badugu, bekatariak konbertitzeko lan eginez, Santa Teresitarena egingo dugu: gure zerua igaroko dugu lurrean ongia eginez.”

Hartutako lekukotasun guztiei erreparatuta, esan daiteke klaretar hauek Kristoren jarraitzaile izatearren hil zirela, fedeari uko egin nahi ez eta erlijio botoei eustearren. Horregatik, haiek isuritako odolaren bitartez denok bultzatzen gaituzte Jainkoaren Hitzarengatik bizitzera eta hiltzera, hura iragartzeko deituak garen aldetik.

Barbastroko martiriek, San Antonio María Claret fundatzaileari jarraituta, hark ere bizitzan atentatu bat izan baitzuen, Jesus eta Mariaren maitasunarengatik odola emateko gogo bera

zeukaten, hainbeste aldiz abestutako dei honekin adierazita: “Zugatik, nire erregina, odola eman”. Santu berak bizitzako programa bat prestatu zuen erlijiosoentzat: “Mariaren Bihotz Garbiaren seme bat karitatean kiskaltzen eta igarotzen den lekuan sua uzten duen gizona da; mundu guztiak Jainkoaren maitasunaren suan biztea nahi duena eta, ahal den modu guztietan horretan ahalegintzen dena”.

### **Mass-media (L. González-Carvajal)**

Gizarte komunikazioa gizakia bera bezain zaharra da, baina bitartekoak etengabe ugartzen eta handitzen joan dira. Hasieran, komunikazioa – pertsonen artekoa bakarrik eta zuzena– fisikoki elkarrekin zeudenen artekoa baino ez zen. Idazkera asmatzean –orain dela hiru mila urte– posible egin zen komunikazioa aurrez aurre ez zeudenekin ere, baina oraindik mezuak banan-banan eman behar ziren. 1455ean inprenta asmatzean jauzi kualitatiboa egin zen: mezuak seriean eman ahal izatea. Hala ere, inprentako testuak beti izango du zabalkunde mugatua. Benetako jauzia XX. mendean egin da, *masa hedabideak* deritzan bitartez (zinea, telebista, internet...)

*Mass-media* modernoetan komunikazio bide nagusia ez da hitza, irudia baino. Liburuek, egunkariek eta aldizkariak irudi grafiko asko erabiltzen dituzte. Zineman eta telebistan irudia da ia-ia dena. Aldaketa kultural handia da: hitzaren bidezko komunikazioa batez ere arrazionala da; ikus-entzunezkoen kultura, aldiz, zentzumenen sistemara bideratuta dago batez ere, arrazoiaren eta gogoetaren babesari parte hartzen utzi gabe. Horregatik, hedabide modernoek hedapenak galdera handia dakar atzetik haien erabilera dela eta. Zein helbururen menpe jarriko dira? Nork sortzen du iritzi publikoa? Zer interes daude atzetik? Jeneralean *mass-media* doan edo kostua baino prezio askoz merkeago heltzen zaizkigu. Pentsatzen badugu egunkari bati, irrati bati edo telebista-kate bati eusteak nolako gastutzarrak dakartzan, berehala sortuko zaigu susmoa hori dena ordaintzeko prest dagoena horren truke zerbait lortzea espero duelako dela. Herrialde askotan Estatuak berak mantentzen eta kontrolatzen ditu hedabideak bere politikaren zerbitzura erabiltzeko; beste leku batzuetan finantzatuko interesak daude atzetik.

Hedabideetan benetan pluraltasuna egoteak bidea emango luke berri batzuek beste batzuen gabeziak zuzentzeko eta elkarren osagarri izateko; baina, zoritxarrez, pluralismoa ere berrien *trust* nagusien mehatxupearan dago. Izan ere, bost berri-agentziak kontrolatzen dute planeta osoko informazioaren %95: France-Presse (frantziarra),

Reuter (ingeleza), Tass (errusiarra), Associated Press eta United Press (iparramerikarrak). Azken biek menperatzen dute batez ere informazioaren nazioarteko merkatua. Berriemaile baten bitartez heltzen ez diren berriak ia guztiak agentzia horien bitartez zabaltzen dira.

Balzac, Havas Agentzia zela eta, (gaur egun France-Presse), munduko lehenengo nazioarteko berri-agentziak, idatzi zuen: "Publikoak pentsatuko du egunkari batzuk daudela, baina, azken finean, bat baino ez dago. Havas jaunak, hilean diru kopuru baten truke, denei egunero-egunero ematen dizkie atzerriko berriak, ondoren bakoitzak zuriz, berdez, gorriz edo urdinez moldatuko dituenak".

Manipulatzeko arriskuaren aurrean bi babes bururatzen zaizkit. Komunikatzaileengan kontzientzia etikoa eragitea eta hartzaileen espiritu kritikoa.

Adierazpen-askatasuna gizateriaren lorpenik handienetako bat da. Baina, noski, adierazpen-askatasunak ez du baimenik ematen besteak engainatu, iraindu eta asalatzeko. Frantziako Asanblada Nazionalak 1789ko abuztuan Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena aldarrikatu zuenetik hona, eta bitartean Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala egin da (1948), denek gogoratu dute adierazpen-askatasuna ez dela giza-eskubide bakarra eta, ondorioz, beste batzuk errespetatu behar dituela. Baina, adierazpen-askatasunak inori ez dionez mugarik gabeko eskubiderik ematen, badirudi logikoena dela araubideren batek bideratzea. Askotan esaten da "prentsako legerik onena ez dagoena dela". Bat nator iritzi horrekin, baina beti ere informazioaren profesionalak gai badira beraiantzat kode moral bat eta ohore-epaitegiak prestatzeko.

Jakintzaeren soziologiak erakutsi du ezinezkoa dela errealitatea objektiboki jasotzea. Denak dauka begiratzen den kristalaren kolorea, eta –zoritarrez– inork ez daukagu kristal guztiz gardenik. Edozein erredakziotara egunero heltzen diren ehunka edo milaka metro teletiporen artean berri batzuk aukeratzeak derrigorrez dakar errealitatea manipulatzeko. Baina kazetariak objektibo ez izatea onartu behar badugu ere, eskubidea daukagu zintzoak izan daitezen eskatzeko; ez dezatela nahita errealitatea aldatu, adibidez gertaerak testuingurutik bananduta, edo beren aldera edo beraien taldearen alderako berri emanez bakarrik.

Era berean garrantzitsua da herria hezteko izan dadin manipulazioa igartzeko eta baztertzeak.

Gizarte hedabideek Elizaren ebanjelizazioarako bitartekoak izan daitezke eta izan behar dute mundu garaikidean. Izan ere, sortu ahala hasi zen erabiltzen Eliza: Vatikanoko Topografia Poliglota 1587an sortu zuen Sixto V.ak; 1931ko otsailaren 12an Pio XI.ak Vatikanoko Irratia inauguratu zuen, Marconik, irrati asmatu zuenak berak egin. Baina ezinbestekoa da zer mendetan gauden argi edukitzea. Uste dut gehiegi jotzen dugula oraindik ere inprentako letrara, nahiz

eta, McLuhanek adierazi zuenez, "homo tipographicus" 1905etik aurrera gainbeheran hasi zen eta dagoeneko ez gaude "Gutenberg Galaxian", "Marconi Galaxian" baizik.

## **Telebista Hasteko hamar hitz (E. Gil de Muro)**

Telebista aurrean jartzen zara, eta hasteko, ez zara konturatzen –ez duzu igartzen beharbada– gure garaiko pitonisa handiaren aurrean zaudela. Nahikoa da apur bat uztea hura bihurtzeko zure emozioen eragilea eta baita kontzientziako erabakien irenslea ere. Nire ustea da, telebista ikusten jarri aurretik, ez litzatekeela txarra izango neurri batzuk hartzea, eta hamar finkatzea otu zait. Hauek dira.

### *1. Ezagutu ezazu telebista.*

Ez da aurrean jartzen zaren aparatua bakarrik. Hori baino gehiago da produktu plastiko eta soinu-duna. Hura egin ahal izateko ahalegin handiak behar izan dira, dirutan eta giza baliabideetan, baita buruko minen bat edo beste ere, eta baliteke kontzientziaren bat baretu behar izatea ere. Francois Truffaut-k esaten zuen kamera-mugimendu txikiak ere arazo moralak zela.

### *2. Maita ezazu balio duen neurrian.*

Ez pentsatu etxean telebistak eragin ditzakeen arazoentzat konponbiderik onena kanpoan uztea denik. Telebistatik ez edukitzea, alegia. Telebista, itxuraz hain zapaltzailea, berez esanekoa eta apala da. Xumea da eta inor ez du azpiratzen. Badaki hartzailearen esku dagoena eta haren erabakiak errespetatzen ditu. Telebistak, azken batean, bere produktua eskaintzen du. Eta maitatu egin behar da produktu hori ugaria eta errespetuzkoa delako. Zuk eskuan daukazu urrutiko mandoa. Eta horrekin nahi duzuna egin dezakezu. Eta telebistak ez dio inori kezurik eramango.

### *3. Ez da bakarrik ikusi behar.*

Telebista ez da izan behar nagia astintzeko tresna, zer egin ez dakigunean ezer egin gabe ematen ditugun ordu luzeetan. Telebista ikuslea eskuzabala izan behar da bere buruarekin eta besteekin. Eta, ahal duen neurrian, besteak ikuskizun batera deitu behar ditu denentzat aberasgarria izango delakoan elkarrekin banatuz gero. Telebistaren benetako hartzailea ez da norbanakoa, familia-taldea baino. Pertsona batek berak bakarrik... eta bakartuta ikusiko lukeena baino gehiago eta hobeto ikusiko du bi edo lau edo bost badaude.

### *4. Eskatu telebistari telebistak eman ezin duena.*

Kultura eskatzen zaio. Kultura uniformeak. Herritarrengan bertuteak eraikitzeak eskatzen zaio,

moralak bakarrik eta katekesikoa balitz moduan. Gu ez aspertzeko eskatzen zaio. Gure aisialdirako entretenitzeko daukagun gaitasunarekin ondoan doana emateko eskatzen zaio. Konbentzitu beharra daukagu: telebista ez dago zerbaiten edo norbaiten gabeziak betetzeko. Telebistak, besterik gabe, bideak erakusten ditu. Horretarako ez zaio eskatu behar, horrez gainera, harantz bultzatzea.

#### 5. Aukeratu saioak.

Edozer ematen dutela ere, ez irentsi guztia. Zu kontsumitzaile itsua bazara, azkenean gogaitu egingo duzu telebistarekin eta ondorioa aterako duzu ez dagoela ezer benetan merezi duenik. Nik baietz esan behar dizut: egunero dago telebista (daukagun telebista ugarietan) nahikoa saio erakargarriak. Ezinbestekoak ere. Bilatu egin behar dira, argi dago. Eta haien artean egin behar da eguneroko menua.

#### 6. Zuk zeuk bilatu saio bakoitzeko almendra.

Aukeraketa eginda dago. Orain eseriko gara prestatu dugun menua txikitzeko. Orduan konturatuko zara saio bakoitzak zerbait eskatzen duela: gaiak, errealizazioak, konpromisoak. Aztertu berriro ere osagaion kalitatea. Konprometitu haiekin. Aurkitzen duzun lastoa kendu. Gorde garaua, almendra. Hau da, ikusle pasiboa izan barik bihurtu ikusle zuhur.

#### 7. Katea aldatzea zentzuzkoa da.

Ez dezazula aldatu eskatuko dizute. Apur batean itxaroteko eskatuko dizute, publizitate-sarea gainean botatzen dizuten bitartean. Ez kasurik egin halakoei. Ikusten ari zaren saioa gustukoa baduzu, jarraitu baina inork horretara bultzatu gabe. Baina saioa gustatzen ez bazaizu, jakin zergatik aldentzen zaren, eta hala eta guzti ere aldentu zaitez.

#### 8. Baztertu indarkeria.

Indarkeria guztia. Filmetan datorrena, indarkeriaren gainean eta haren komenigarritasunaren gainean serietan kontatzen dena, edo gerra irekiari edo iraultza-ekintzei buruzko dokumentuetan sartzen dena. Etxean dauden gazteek azkenean ez dute bereiziko benetako indarkeria –dokumentala– eta eraikitakoa. Eta indarkeriari dagokienez irudiak berdinak dira.

#### 9. Ikusi denaz hitz egin behar da.

Saioek ez dute hil behar behin telebistatik igarota. Saio onek eskubidea daukate eztabaidatu daitezen eta haien gainean ondorio estetiko eta moralak ateratzeko. Baita gauza biak batera ere. Eta ikusle argiak ondo egingo du bere ideiak –saio batek eraginda sortutakoak– etxeko edo kaleko edo lagunarteko elkarrizketara eramaten. Gai jakin batzuetara hurbiltzeko batzuek zein irudimen gutxi daukaten ikusita, telebistak asko arindu dezake egoera hori.

#### 10. Saio guztiak ez dira berdinak.

Formulazioak ez dira berdinak. Hartzailak ere ez dira berdinak. Saio batzuk grabatuak dira eta beste batzuk zuzenekoak. “Zuzenean” egindakoak dira telebistarik benetakoena eta hori kontuan hartu beharko da. Estudioan prestatutakoak edo diferituan ematen direnak, irudiak manipulatzeko aukera eta guzti, beti dira susmagarriak. Ikusle argiak kontuan hartu beharko ditu ezinbesteko baldintza horiek. Eta hori edo hortik gorako ezer gutxi esan dakioke ikusleari, oraingoari eta gerokoari, Telebista esaten diogun kulturaren bitarteko zoragarri horretaz. Digitala zein bestea.

### Internet eta bizitza kontsaktatuak (“Hurbilagotik” bloga)

Benedikto XVI.ak bizitza kontsaktuari konbite egin dio San Paulori jarraitzeko, misiolariarik inon bada bera. Aspalditik askok hitz egiten dute internetez Atenasko areopago berria balitz moduan, gure fedea gure kulturarekin harremana eta elkarrizketa egin beharko balu bezala, bizi garen kultura eta espazio hori (internet) Ebanjelioko Berri Onak “zeharkatu” ahal izateko. Horregatik bizitza kontsaktatuak ez dauka interneten beldurrik. Ez dio beldurrik gure garaiko, adin eta kultura, ikasketa maila eta sineskera askotako milioika gizon-emakume bizi diren espazio global horri. Internet beste ezer baino gehiago aukera bat da.

Urte gutxitan –arin ere arin doa– web mota guztiak, blogak eta gainerako garapen birtualak sortzen ikusi ditugu, komunikatzeko aukerak eta harreman motak biderkatu egin dituztenak, sarea ia denetik egin daitekeen lekua bihurtuz.

Webean saldu eta erosi egin daiteke, informatu eta deformatu, entretenitu edo aspertu, harremanak egin edo anonimatu ezkutatu, bedeinkatu eta iraindu, eraiki edo hondatu. Ikasi egin daiteke, prestatu eta baita sexu-harremanak ere. Adiskidetasuna bultzatu daiteke eta familia osatu, maite ditugunekin distantziak txikitu eta hurbildu eta urrun dagoela ematen duena hurreratu. Jainkoak hitz egin daiteke, otoitz egin eta espiritualki zuzendu. Denerako lekua dago.

Batzuek uste dutenaren kontra, sarea berez ez da beste leku batzuk baino bekatariago; Benedikto XVI.ak dioenez, “potentziala da, eta ondo erabilita benetako dohaina”. Gure munduaren adierazpena da, ez gehiago ez gutxiago. Hura nola erabiltzen dugun gizakiaren oinarrizko joera etengabe baten alderdi praktikoa baino ez da, beragandik harago joateko besteekin harremanetan jartzeko.

Beste alde batetik, internetek ohiko komunikazioaren paradigma eten eta informazio, adierazpen- eta iritzi-askatasun espazio berrira ireki gaitu, orain arte ezagutzen ez genuen espaziora.

Edonork dauka informaziora sarbidea munduko edozein lekutatik abiadura sinestezinean. Norbere komunikabide edo adierazpidea sortu daiteke edo, gutxienez, sareko edozein tokitan irekitzen diren foro eta eztabaida zenbatezinetan parte hartu. Informatzaile aditu batzuek agerian utzi dute orain ez dagoela isilpekorik. Edozein iritzi-emaile anonimok eman dezake berri bat edo iritzi bat, edozein blog edo forotan, Elizaren bizitzan eragiten duen zerbaitez, garrantzitsua izan zein ez. Kontrolerako muga batzuk hausten dira eta beste muga batzuk sortu egia lortu ahal izateko. Edozein zurrumurru berehala hedatzen da eta komentario anonimo batek berri bat bideratu edo gizartean eragin dezake. Zalantzarik gabe, eszenategi berri baten aurrean gaude.

Bizitza kontsokratua norabide horretan doa eta, beldurra eta ikara eta guzti, giltza aldatzen doa eta ikuspegi berri horretan kokatzen ikasten. Internet, badakigu, bera ez da helburu bat, ebanjelizaziorako beste bitarteko bat gehiago baino, bizitza kontsokratuak beti egin ohi duenez, Jainkoaren gloriarako erabiltzeko modukoa.

### **Galderak eta galderak: Nahikoa esan beharko ote da...? (José Cristo Rey García Paredes)**

Galderen, galdetegi, iritzi-inkesten, testen kulturean gaude. Gure bizitzan zehar inoiz edo behin erantzun beharreko galderen aurrean suertatzen gara: batzuetan bat-batean, beste batzuetan memorian arakatzen, beste inoiz etorkizuna asmatu nahian edo amets, beldur eta zoritxarrei itxura emanda.

Galderei erantzun edo ez erabakitzeko libreak garen arren, egia da barrutik derrigortasun moduko bat sentitzen dugula –eta ez da erraza horri aurka egitea–; hortik datorkigu eraso moduko bat gure intimitatean, gure bizitzako sentimendurik serioenetan. Egia da anonimata edo taldeko erantzuna pribatasuna babesteko dela, baina orduan galdetzen duzu: ez ote gara gehiegikeriaz jokatzeko ari?

Testuinguru horretan gu ere, elizako edo erlijio bizitzan ere, sarritan galdetegi, galderek behartuta sentitzen gara, gure iritzia ematera, gure biziera, gure pentsaera eta jokaera azaltzera. Galdera-sortak etengabeak dira. Ez du ardura adinak: berdin dio gaztea izatea, heldua nahiz hirugarren adinekoa. Jainkoarekin nolako esperientzia duzun galdetuko dizute, zer arazo dituzun bizitza espiritualean, zein den zure biziera eukaristian, nola jokatzeko duzun obedienciaz... eta antzeko beste gauza batzuk. Gero horri guztiari banaka eta taldean erantzuteko eskatzen digute.

Sistemaren gizentasunera heltzen ari garela uste dut. Agiriak galderen bitartez egiten dira, denen

parte hartzea eskatzeko aitzakian. Sistema itogarria bihurtzen da. Gerorako sena eduki behar luketenen lidergorik eza, jakiturarik eza, gogoeta eta bereizketarako tarte seriorik ez hartzea dela eta, agerikoa eta begien bistakoa nagusitzen doa, helburuak betetzen dira kalitate-azterketa sakonik egin gabe. Hori da zuek esan duzuen! esango dute.

Baina sartu gaitzen apur bat sakonago. Galdera bat egitea pentsamendua hesitzeko modu bat izan daiteke. Galdera batek auto-galderak, pentsamendu berezkoago eta sortzaileagoak ateratzea eten dezake. Galdera zezenzaleak zezenari oldartzeko botatzen dion kapote gorriaren antzekoa izan daiteke, zezen-plazako ikuspegia lausotzen baitio. Galdera bat inoiz ez da inozentea: arreta erakartzeko eta entretenitzeko modu bat da. Galderak “entrenitzeko arma masibo” bihurtzeko.

Galdera kontrol modu bat ere bihurtzeko. Galderak eta galdetegiak egiten dizkigutenentzat erantzun-pertsonak bihurtzeko. Gertatzen da: ezin zaio galderarik egin guri egiten dizkigunari. Haiek egiteko eskubidea daukate: besteok erantzuteko bakarrik. Nahi gabe, galdetzen duena goragoko mailan jartzen da. Hori egiteko eskubidea duela uste du eta, beharbada, ongia egiteko modua dela pentsatuko du. Baina ez da egoten parekotasunik galdetzeko eskubidea duenaren eta erantzuteko beharra duenaren artean. Galdetzen dutenek erantzuten dutenak kontrolatzen dituzte. Horixe da kontrolatzeko modurik leunena. Datu-baseak erantzuten dutenen datuekin betetzen doaz. Gaur egun guztiz kontrolatuta gaude interneten, telefonoetan, espaziotik datozen irudietan. Kontrolaren gizartean gaude, intimitatea, pribatasuna behar den moduan errespetatzen ez den gizartean.

Lehen bizitza espiritualetako maisuek norberaren azterketa egiteko aholkua ematen ziguten, aitortza baino lehen kontzientzia-azterketa egiteko esaten ziguten eta galdetegi luzeak ematen zizkiguten erantzuteko eta auto-salakuntza prestatzeko, meza guztiak kontzientzia-azterketa eginez hasi behar ziren eta eguna amaitzeko beste kontzientzia-azterketa bat egin behar. Gero, amaiera aldeko teologian epaiketa partikularra eta azkenean epaiketa unibertsala aipatzen ziren. Aldi batean halako metodoak zaharkituzat hartzen ziren eta gizakia modu osoagoan, korapilatsuagoan ulertu behar zela pentsatzen zen, galdera batzuetara laburtu gabe. Baina, hara sorpresa, aurkitu nuenean azterketa partikularreko galdetegi zahar batzuk psikologoek erabiltzen zituztela gaixoen bilakaera kontrolatzeko. Eta oraindik ere sorpresa hartzen dut ikustean menperatuta, kontrolatuta edukitzeko modu ohiko, leuna, une batean edo bestean erantzun behar ditugun galdera-sorten itxuran.

Ez al dago gauzak egiteko beste modurik? Arazoa ez da konpontzen galderen orde aginduak jarrita. Horretaz ere zoritxarreko esperientzia daukagu. Arazoa konpontzeko da, segurutzek,



aliantzarako testuingurua sortuta, hau da, elkar estimatzeko, elkar baloratzeko, elkarrizketarako. Eta horretarako beste batzuk onartu behar dira, galdetzeko eskubidea ere zuzentzen ez dutenak. Benetako elkarrizketan –ez diot eztabaida, ez borroka dialektikoa– denak sartzen dira galderaren eta erantzunaren ekologian, inork ez du inor kontrolatzen, inor ez da inoren gainetik jartzen.

Azkenik, une batean konfiantza izan behar dugu berezko erantzunak agertuko direla aspalditik guri erronka jotzen diguten galderentzat. Galderen pelagianismoa ahaztu eta askatasunen elkarrizketan, isilaldien elkarrizketan, Graziaren itxaropenean sartu behar da. Isiltasuna jasaten badugu, segurutik galdetegi askok azkenean ezkutatu egiten dutena aurkituko dugu.

Agiri baten edo testu baten amaieran galderak egiten direnean, baliteke irakurlea beheragoko mailan dagoela pentsatzea eta pedagogikoki lagundu behar zaiola. Galdera goiko batek beheko bati egiten dio, menperatzaile batek menperatu bati, ikertzaile batek ikertu bati.